

DEFINIZIOA

Kontsumo jardueetan ditugun ESKUBIDE ETA EGINBEHARRAK onartu, gure ekintzek gure inguruaren egoerarekin harremana zuzena duela barneratuaz, eta horren arabera jokatu.

EGOERA PRAKTIKOAK



JON hiriko apartamentu txiki batean bizi da eta:

- Auzoko denda batean egiten ditu erosketak, autoa hartu eta azalera handi batera joan ordez.
- Ontziratu gabeko produktuak erosten ditu, bandejatxoetakoak erosi beharrean.
- Ontziak, beira eta kartoia horretarako prestaturiko edukinontzietara eramaten ditu, birziklatzeko.
- Erabilitako olio kristalezko ontzietan metatzen du, eta Garbigunera daroanean, paseoa emateko aprobetxatzen du.
- Izugarri gustatzen zaio litxarreriak jatea, baina paperontzietara botatzen ditu hondakin guztiak, paseatzen duen bitartean.
- Erosketak egin aurretik, zerrenda prestatzen du.

Jonen jokabideari jarraituz, gure inguruarekin modu arduratsuan jokatzen dugu, konprometiturik:

- Ez dugulako autoa alferrik erabiltzen.
- Ez ditugulako plastikozko ontziak alferrik pilatzen.
- Hondakin gutxiago sortzen dugulako, eta sortutakoak birziklatu egiten ditugulako.
- Gure inguruko kaleak garbi mantentzen ditugulako
- Ondorengo belaunaldiei utziko diegun munduaz jabetuz jokatzen dugulako.

GOGOAN
IZAN

► Kontsumitzaile eta herritar garenez, geurea dugu ingurua zaintzeko erantzukizuna, eta horrek BIRZIKLATZERA, erosketak egin aurretik GOGOETA EGITERA, batez ere, gure ekintzek inguruan ERAGIN ZUZENA dutenaz jabetzera garamatza.